

8- FUNTSEZKO JARDUERAK:

Gure enpresak ondo funtzinatzeko jarduera batzuk besteak baina garrantzi handiagoa dute. Jarduera horiek funtsezkoak direla esan genezake gure enpresa barruan.

Funtsezko jardueretako bat, elkarrekin lan egitea da. Azaldu dugun bezala, gure enpresak bi zerbitzu mota eskainiko ditu. Beraz, egin beharreko lana handiagoa da. Lana hau errezteko, elkarren arteko kooperazioa ezinbestekoa da. Zehazki gure idea lana ondo zatitzea eta bakoitzak egin beharreko guztia ahalik eta hoberen eta gogotsuen egitea da, arazoak murrizteko eta etekin handiagoak lortzeko.



Bururatzen zaigun beste jarduera garrantzitsuetako bat, jendeak gu ezagutzea da. Enpresa guztiz berri bat sortuko dugunez bezeroak lortzea da lehen erronka zaila. Horretarako, inguruko bezero posibleek ezagutu egin behar gaituzte. Bezeroak lortzeko marketing eta publizitate sakona egitea pentsatu dugu, gertuko jendea ereabiliko dugu inguruan ahoz aho zabaltzeko. Bestalde, hainbat aseguru, hilerri eta beterinarioekin harremanetan jarriko gara hildakoak gugana zuzenean bildaltzeko.

Jarduera honekin batera, azkenik gure azken funtsezko jarduera izango genuke, tratu ona izatea bezeroengan. Funeraria Maitek asko zainduko ditu bezeroak, gure lana zabaltzeko. Bezeroek, jende gehiagori enpresa gomendatuko diete eta horrela eskaria igo egingo litzateke.

